

## **ANOETA KIROLDEGIKO OBRAK DIRELA ETA, KONTROL MOZIOA**

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Anoeta Kiroldegiaren eta kultur etxearen egoera dela eta, Udalbatzaren osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko martxoaren 12ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Otsailaren 27an Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean bilera irekia egin zen, estadioko obrak inguruan sortuko dituen eraginak direla eta. Obraren kronogramaren arabera, jakina zen kultur etxeak gaur egun dituen espazioak itxi beharko zituela. Bileran esandakoaren arabera, martxoaren 1etik aurrera liburutegia eta KZGunea itxiko dira, eta lehengoa martxoaren 27an ARCCO merkataritza guneko bigarren solairuan 168 m<sup>2</sup>-ko lokal batean eta bigarrena apirilaren 9an merkataritza guneko lehen solairuko 110 m<sup>2</sup>-ko lokal batean behin-behingo irekiko dira; lekualdaketa hau urtebeterako izango da. Argi dago nahikoa ez dela.

Bestalde, maiatzaren 14an ikastaroak ematen diren gelak itxiko dira eta bukatu ez diren ikastaroek jarrai dezaten, gaur egun, ez dago inongo kokapenik. Hau gutxi balitz bezala, Gaztelekua apirilaren 30etik irailaren 11ra itxita egongo da, eta Haurtxokoa maiatzaren 14tik irailaren 11ra arte, eta 2018-2019 ikasturterako kokapenak zehazteke daude oraingoz.

Jon Insaustik, Kulturako zinegotziak, ikastaroak amaitzeko hainbat leku aurkitu dituztela esan zuen batzordean, baina ez zuen toki bakar bat ere zehaztu. Areago, kultur etxearen zerbitzuak lekualdatzeko lokalak begiratzen urtarrilean hasi zirela gaineratu zuen. Eta hau ulertezina da: obrak hasi zirenean jakina zen une hau iritsiko zela; duela bi hilabete hasi da Udal Gobernuak, ordea, lokalak bilatzen eta martxoan gaude, eta Gaztelekuak eta Haurtxokoak ez dute leku zehatzik oraindik ere. Aurreikuspen eta plangintza falta begien bistakoa da. Eta horren ondorioz, amatarrek zerbitzu eskasak izango dituzte.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA**

1-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari behin-behineko kultur etxea eta haren zerbitzuen duintasuna berma dezala.

2- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, aurreko puntua betetzeko, Amara Berriko eragileekin (hezkuntza arlokoak, eragile sozialak...) harremanetan jar dadin arazoa konpontzeko asmoz.

Donostian, 2018ko martxoaren 16an

Josu Mirena Ruiz Martin  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**

EH/  
P2007/  
T.E.R./  
E1/  
01.12.2018  
10655  
2011-  
06

EH/  
P2007/  
T.E.R./  
E1/  
01.12.2018  
10655  
2011-  
06